

# Nafarkaria

• ostirala • 1999ko ekainaren 18a

**Egunkaria**

Gehigarri honetan



**Bera** • Udan hainbat ikastaro antolatu dira Kultur Etxean.

**Carmen Pugliese** • «Errespetuak bereizten ditu erromesa eta ibiltaria».

## Antxitonea



• MIKEL SAIZ

### trinketearen zaharberritzea

Elizondoko Antxitonea trinketeak mende bat baino gehiagoko historia biltzen du bere paretetan. 1894an Antxitonea deitzen den etxearen atzean trinketea egiteko erabakia hartu zenetik, hainbat ekitaldi egin dira eraikinaren hormen artean: sona handiko pilota partiduak, bertsolari txapelketak edota mitin politikoak. Orain, zaharberritze eta aldaketa bidean da Baztanen euskal kulturaren zimendu eta oinarri izan den toki hori. Francisco Urrutiak erosi du, Mexikotik etorri berria den azpilkuetar batek, eta beste erabilera batzuk ere emango dizkio: trinketeak segituko du oinarri izaten, baina hotela, gimnasioa, igerilekua eta squash pista bi gehituko dizkiote.





Lizarra ●

# Jaietarako kartela prest

Pedro Irulegi lizarratarak irabazi du lehiaketa 'Singular' lanarekin

Iragan ostiraletik datorren astelehena arte ikus daitezke Fray Diego Kultur Etxean aurtego lehiaketara aurkeztu diren jaietako kartel guztiak, nagusiek egindakoak zein txikiek marraztutakoak.



Jaietako kartel garailea ikus daiteke erakusketan. ● MIKEL SAIZ

Orotara 33 artelan ikus daitezke egunotan Lizarrako Fray Diego Kultur Etxeko paretetan eskegiak. Guztiek Lizarrako jaietako irudiak jaso dituzte. Izan ere, guztiak jaietako kartelak dira. Ahatik, marrazki bakoitzak jaietako instant bat jasotzen du, egiaz marrazki bakoitzaren atzean egile desberdin bat dago, eta jakina, egile bakoitzak modu berezi batez ikusten ditu jaiak eta modu jakin batez islatzen ditu paperean. Beraz, 33 lan eta 33 sentimen, 33 ikusmen, 33 bihotz eta 66 begi eta berzte 66 esku.

Pedro Irulegi lizarratarak eskuratu du aurtengo jaietako lehen saria. Lanaren ordainean 125.000 pezeta irabazi ditu. Irulegik laugarren garaipena du Lizarrako Udalak 1986. urtetik antolatzen duen lehiaketa eta diseina-

tzaile grafikoa izaki, ordenagailuz egin ditu lan guztiak. Aurtengo lanak *singular* du izena eta San Pedro elizako klaustroa du ardatz, bertan dagoen zutabe trukatu, zehatzago esanda. «Elementu hori aukeratu izana ez da oso arrunta. Izan ere, artea eta jaiak printzipioz ez datoz bat. Dena den, Lizarrako sinbolo bat da eta bertako jendeak ez ezik, kanpokoak ere aski ongi ezagutzen du zutabea. Gauzak horrela eta aurten Xakobeoa ospatzen dela hustiratu, zutabea izan dut ardatz. Hori bai, horren inguruan jaiaren zenbait instant ma-

rraztu ditut, hala nola, entzierroa, erraldoiak...», dio artistak bere lanaren inguruan. Teknikari dagokionean, aipatu beharra dago ordenagailua erabili dela lana egiteko. Estiloa primitiboa da guztiz, naif joerakoa. Konposaketa barrokoa du eta kolorea, berriz, bizia, jaietako kartel batek agintzen duen moduan.

Bigarren saria Raul Lopez lizarratarak eskuratu zuen *Espacio compartido* izeneko lanarekin eta hirugarren David Ibañez *Al compás de la gaita* marrazkiarekin. Gazteentzako lehiaketari dagokionez, Irantzu Ros 13 urteko

neskatoak lortu du aurreneko saria. *La fiesta ya está montada* izeneko marrazkiarekin. Bertan zerurantz doan suziri bat ikus daiteke, eztanda egin eta jaiak sortzen duena. Bigarren saria, berriz, hiru neskatok elkarrekin egindako lanarentzako izan da. *Danzas, toro...fiesta* izeneko marrazkia Estefanía San Martín, Amaia Busto eta Nahia Zudairek egin zuten. Lan guztiok, eta sarituak izan ez direnak ere bai, Lizarrako Kultur Etxean ikus daitezke astelehena arte.

→ Kristina Berasain

Aralar

Kofradiaren Eguna etzi

Erdi Aroan sortutako erakunde da San Miguel Excelsisen kofradia. Ardoa, zainzuria eta halako jan-edanen inguruan sortu ohi dira kofradiak, baina San Miguelekoa askoz espiritualagoa da. Aralarko mendi kaxkoan dagoen santutegi honen lagunak biltzen dira erakunde honetan, hau da, santutegia mantendu ahal izateko bere esku dagoen laguntza guztia emateko prest daudenak.

Ez ingurukoak bakarrik, Euskal Herri osokoa dira kofradia honetako kideak, eta batenbat ba omen da Euskal Herriatik kanpokoak ere. Kofradiaren erregistroan izena emana dutenak 1.500 lagun dira. Baina Inozentzio Aierbek aitortzen duenez, datu hori gutxi gorabeherakoa da, batzuk dagoeneko hilda daudelako.

Kofradea izatea urte osoko kontua da, baina urtero-urtero, egun batez, gainerantzeko kofradeekin biltzeko aukera izaten da. Ekainaren lehen igandean izan ohi da ospakizun hori, baina aurten, hirugarrenera atzeratu behar izan dute. Lehen igandean, Korpus eguna ospatu zen, eta joan den igandean, berriz, hauteskundeak. Beraz, etzi hurbilduko dira San Migelerraino. Meza entzungo dute aurrena. Gero bazkaria, eta ondoren, musika eta jai giroa. Inozentzio Aierbereren hitzetan, «anairtze» festa da.

→ Urko Aristi

bidean begi

MAITE URKIA



Uda heldu da urtero bezala, eta gure inguru honetako klimak agindu ohi duenez tarteka nahasia, eguzki eta haize hotz, eta betiko solasak giroaren gainean, nahiz eta menditartean hazi eta orain lur lauagoetan bizi den bati eguraldi lanbrosuek babes antzekoa eskaintzen dioten, lehenarekiko nostalgiaren fereka leunen bat (egun ilunak gehiegi luzatzen ez direnean behintzat).

Dekorazio aldizkari bateko argazkiei begira nengoela denbora oharkabean joan zait; irudietako landareek eta zumezko aulki zein besaulkiek, argitzal freskagarriek atsedean sentsazioa eman didate eta horrek iratzargailuaren erreinutik libratzen gaituen opporraldia ekarri dit pentsamendura.

## Han eta hemen

Eta horrekin lotuta, lerro hauek idazten ari naizen arratsalde grix honetan oroitzapenek atzera egin eta neskato bat nintzela maiz irakurri edo begiratu nuen liburu batez oroitu naiz: *Dime dónde está*, beste bost libururekin entziklopedia txiki bat osatzen zuena (*Dime quién es, Dime cuéntame...*). Munduko xoko asko agertzen ziren han eta tesoroak beteak erakusten zuten mundua, gaur egun ia hipermerkatuetan bezala saltzen diren tesoroak, txokolatearen eta arrozaren antzera saltzen baitira Maldibak, Indonesia, Egipto, Samarkanda, Laponia, Patagonia...

Misterioz betetako izenak ziren, irudimena daradazten zutenak, baina bidaia etxeen iragarkietan

hainbeste aldiz ikusi eta gero Paris edo Londres bezain hurbilak dirudite orain.

Hala ere, ezin ukatuko dugu hegazkin edo autobuskadetan tropan bidaiatzeko aukera alde batera utziz gero «tesoroak» eta baita arriskuz beteak ere badagoela mundua oraindik, eta bidaiatzeko bakoitzak duen jarreraren arabera kilika berezia senti daitekeela barrenean, ala sentitu ez.

Dena dela, jende mota asko gaudenez munduan, bakoitzak nahi edo ahal duen bezala pasa ditzake oporrak: Benidormen, Zarautzen, Santo Domingo de la Calzadan, Kanadan, Kenyan, etxeko jardinean edo, adibidez, Britainiako Finisterren iparraldean dagoen Roscoffen.



## Bera ●

## Uztaila, ikasteko tenorea

Ikerketa, antzerki eta ahots ikastaroa antolatu dira hurrengo hilabeterako

**Ikasturtea bukatzean, dagoenean, uztaileko ikastaro mordo antolatu dituzte Berako erakundeek. Adin guztietako jendearentzat, gauza aski diferenteak egin ahal izanen dira.**



Bidasoaldeko Ikerketa Zentroko kideek ere antolatu dute ikastarorik.

● ARTXIBOKOA

**I**KASTARORIK BITXIENA, EZBAIRIK gabe, orain arte gisakorik antolatu ez delako, Bidasoa Ikerketa Zentroak antolatutakoa da. Erakunde horrek eskualdeko historia ikertzen dihardu. Joan den urtean Lesaka eta Beran ikastaro bana antolatu zituen bertako historia ezagutzera emateko. Oraingoan, berriz, ikertzen jarri nahi dituzte herritarrek. Ikastaroaren bidez tokiko historia nola ikertu erakutsiko da. Hiru irakasle ariko dira zeregin horretan uztaile eta iraila bitartean: Fernando Mikelarena, Pilar Erdozain eta Juainas Paul. Herrietako artxibotetan nola bila ditzakegun gaiak, non aurki dezakegun informazioa, edota nola bideratu eta kontrastatu lortutako informazio hori, bertzeak bertze. Izen ematea Berako kulturetxean egin behar da

hurrengo hilaren 25a ortzira-laino lehen. Uztaile eta iraila bitartean hamabi saio emanen dituzte, eta ordutegia parte hartzaileek eurek aukeraturakoa izanen da.

#### Antzerkigintza ere bai

Lamixine Bat antzerki taldeak, bertalalde, hiru ikastaro antolatu ditu hurrengo asteetarako. Ekainaren 28tik uztailearen 3ra ahots ikastaroa antolatu du antzerki taldeak, Kozana Luca irakasle argentinarraren eskutik.

Egunero arratsaldeko

15:00etatik 20:00etara izanen da ikastaroa Berako kulturetxean. Ahots ikastaroa jende guztiari zabalik dago, abesbatzetako kantariei, antzerkia egiten dutenei, irakasleei, kazetariei, eta oro har, ahotsa landu nahi duten guztiei.

Lamixinek antolatu dituen bertze bi ikastaroak uztailearen 14, 15 eta 16an egingen dira, aitzinekoak bezala kultur etxean. Goizetan, 10:00etatik 13:00etara hirugarren adinekoei zuzendutako antzerki ikastaroa izanen da. Lehendabiziko aldia da

hirugarren adinekoei bereziki antolatutako ikastaro bat eskaintzen dela. Egun horietan ere arratsalde 16 urtetik goitiko gazteentzat antolatu dute ikastaroa, arratsaldeko 15:00etatik 18:00etara. Azkenengo egunean elkarrekin jardungo dute bi taldeek, eta hiru egun horietan ikasitakoa taulagainean paratuko dute, besta ttikibaten bidez. Horren bidez gazteak eta adinekoeak elkartu nahi dituzte ikastaroaren amaiera gisa.

→ JonAbril



### herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Xarriton eta Lekuona saria

Lekuona saria jaso berri duela eta, Piarres Xarriton euskaltzainari elkarrizketa egin dio **Herria** astekariak. Saria jaso izanari buruz, horrela mintzo da Xarriton: «Ohere handi bat izan da, batere dudarik gabe. Iparraldetik hirugarrena izan behar niz sari hori eskuratu duena. Ene aintzinean izanak Eugene Goyheneche eta aita Diharce *Iratzeder*. Mugaz bestaldekoetan ere bertute eta hedadura handiko gizon batzuk ukana dute sari bera. Horien artean aita Riezu eta Carlos Santamaria. Holako batzuen le-  
ro berean sartzea, hori enetzat ohore han-

dia zinez. Zernahi konplimendu ere entzundut saria hartzearekin, usaian bakoitzak berak ez dituenak sekulan aditzen, norbait hil ondoan baizik ez baita harentzat holakorik erraiten! Ez dakit hoinbeste konplimendu merexi nuen bainan horrek erakusten du dudarik gabe ene urratsak, eskuin eta ezker, ez direla denak alferretan izan».

Euskal kulturaren alorrean lanean mende erdi eman du Hazparneko euskaltzainak: «Holako zerbait. Eman dezagun 56 urte, ezen 1943an idatzi nuen liburuño bat euskaraz, *Euskaldunak*, Euskal Herriaren

historiaz eta geografiaz, Lafitte kalonjearen kurtso batzuen argitarat. Geroxago, *Pette histoire religieuse du Pays Basque*. Hasi nintzen ere *Herria*-n idatzen, Federalixta izen-ordea harturik».

Euskaldunei mezu bat bidali die Xarritonek *Herria* astekariaren bitartez: «XVIII. mendean Joanes Etcheverry saratar medikuak ordukotz egiten zuen dei ber-bera: 'Otoi, ez sar Marsen guduça horietan, bainan lotu beste borroka bati, izpirituaren borrokari. Argi zuen gogoak!'. Bere kulturak salbatu behar du Euskal Herria».



urdai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

### Astronomiaz

Partikulen azeleradore izugarri bat piztu da Iruñearen erdian. Printzipioz Burgosera abiatzen ziren Frankfurt motako milaka saltxitxak norabidea aldatu eta honuntza datoz. Siam-en jo behar zuten telefono dei batzuek azken momentuan atzera egin eta Iturramako hotel batean jo dute gela bat erreserbatzeko. Garagardo banatzaileak, Madril-en, «nora» galdetu dio enkargatuari eta «Iruñera» erantzun diote: «Iruñera gaur, Iruñera bihar, Iruñera etzi, seigarren al-mazenean dauden kupel guzti haiek eraman arte». Menorcan San Joaneko festak iraun duten bitartean han egon diren Tirapitxonekoek barraka kamioian sartu dute, kamioia ferran, eta itsasoaren erdian daudela Iruñean eskatu behar ditzuzten paperez ari dira.

Iparreko hiritarrak, Iparrekoak bereziki, zertarako engainatu: Iparrekoak bakarrik, Interneten Iruñeko loturak klikatzen dituzte zezenen argazkiak eta hegazkinetako prezioak ikusteko asmoz. Baztango zalditxo bat eta bera erosiko duten valentziarrak, horrela ez badu ematen ere, bidean dira. Bartzelonan oraindik egin ez dituzten milaka kondoi badituzte jada beraien kartoizko kaxak eta kaxa bakoitzean izena jarrita: Iruñea, eta kantitatea: 500 kondoi. Texaseko neska -oraindik ezagutzen ez duen kaliforniar batekin Gaztelu Plazan ero moduan muxukatuko dena- adiskidearen galderari «To Pamplonia» erantzun dio (izenarekin nahastu da. Zer egingo diogu). Zaharicheko zelaietan Mihuraren zeren beltz eta gazte horiek ere Iruñeko bidea hartua dute, bide iluna, algarrobo baten itzalean puzkerrak lasai asko botatzen ari diren arren. Mugimenduak zenbakaitzak dira, astronomikoak. Hemen apuntatu ditudan zenbaitzuk, gainera, hipotesi hutsak besterik ez dira (agian Texaseko neska nirekin muxukatuko da, ero moduan, eta ez kaliforniar batekin, hala izan bedi!). Elementu bitxi eta unibersal horien elkarren arteko talkak Iruñeko partikulen azeleradorean gertatuko dira eta horri «kriston festa» deitzen diogu. Ezin jakin elementu solte guzti horiek sortuko dituzten ondorioez. Zenbakaitzak direlako, neurtezinak, izarren eta neutrinoen antzera: astronomikoak.



# Antxitonea trinketearen

# bizi berria

Baztango euskal kulturaren zimendu eta oinarri izan den Elizondoko trinketea moldatuko dute, eta beste zerbitzu batzuk erantsi

1894an Antxitonea deitzen den etxearen atzean trinketea egiteko erabakia hartu zenetik, hainbat ekitaldi egin dira eraikinaren hormen artean: sona handiko pilota partiduak, bertsolari txapelketak edota mitin politikoak. Orain, zaharberitze eta aldaketa bidean da Baztanen euskal kulturaren zimendu eta oinarri izan den toki hori. Francisco Urrutiak erosi du, Mexikotik etorri berria den azpilkuetar batek, eta beste erabilera batzuk ere emango dizkio: trinketeak segituko du oinarri izaten, baina hotela, gimnasioa, igerilekua eta squash pista bi gehituko dizkio.

ANTXITONEA NAFARROAKO TRINKETERIK EZA-gunena dela esan daiteke. Elizondoko Txokoto auzoan dago, eta historia luze bezain mamitsua du. 1894an eraikia Antxitonea etxearen gibelean, atzeko paretari itsatsia, baditu jada mendea eta bost urte.

Lehenbiziko jabea Domingo Arozarena izan zuen, eta haren seme Salvadorrek hartu zuen gero le-kukoa. Florencio Azkona izan zen hirugarren jabea. Duela bi urte arte, Tomas Ugalde zen trinketaren jabe, baina Baztango jendearen bilgune zen eraikina zahartzen ari zen, eta Ugaldek saltzera ateratu zuen. Mexikon bizi zen azpilkuetar batek erosi zion, Francisco Urrutiak. Hogeita hamasei urte ditu orain



Antxitonea trinketea barrutik. Erreforma sakona eginen diote urte baten buruan. ● MIKEL SAIZ

Urrutiak, eta duela hemezortzi joan zen Mexikora. 1981ean, «Oporretara lehenbizi, hilabete batendako, eta han gelditu nintzen lanean Fermin Iribarren Arizkongo lehen-gusuarekin», gogoratu du. Osabaren artisautza dendan hasi zen lanean. Gero lagun bat ezagutu zuen, eta oilasko denda txiki batzuk irekitzen hasi zen Mexikoko hiriburuan eta handik hurbil. Hogeita hamar denda txiki zabaldu zituzten.

Almazan handi bat zuten oilaskoak biltzeko eta gero euren dendetara banatzeko. Mexikoko negozioa errentagarria izanik ere, herrimnak bultzaturik itzuli da, baina ez geldirik egoteko, baizik eta beste negozio bat martxan jartzeko. «Banuen beti ilustonea familiagatik gibelerat etortzekoa. Duela bi urte jakin nuen, lagun baten bidez, hau saltzen zela, eta egon nintzen nagusiarekin. Berehala konpondu ginen eta erosi nuen. Planoak eta denak egin ditugu; hangoa salduko dut eta hemen lanean hasiko gara», azaldu du Urrutiak.

## Historia handiko trinketea

Historia mamitsua du Elizondoko Antxitonea trinketea. Ez baitira alferrik ehun eta bost urte joan. Duela bost urte mendeurrena ospatu zuen, beraz, eta Nafarroan dauden artean zaharrena da. Baztango ekitaldi inportanteenetako batzuk hartu dituen trinketearen hoteleko hamasei ge-

lak duela hogeitau urte itxi ziren. Geroztik, jate-txea itxi zen, eta orain ezin da trinketea jokatu, birmoldaketa eta zaharberitze lanak hasiak direlako. Trinketeari izena bertan jokatutako pilota partiduak eta kantatutako bertso saioek eman diote, batez ere. Mariano Izeta Elizondoko erlojulegia eta euskaltzaleak dioe-

## Ameriketara joandakenez itzuleraren eredu

50eko eta 60ko hamarkadetan 5.000 baztandarrek utzi zuten bailara beste herrialde batera joateko. *Alternativas al futuro de Baztan, Urdax y Zugarramurdi* Bilboko Hirigintza Laborategiko langile talde batek egindako ikerketaren arabera -horien artean Pello Salaburu baztandarra eta egun EHUko errektorea-, 1977an Baztan Bailarako 370 familia bizi ziren Euskal Herriatik kanpoko beste herrialde batzuetan. Erdi eta Hego Ameriketako herrietan: Mexikon 84, Argentinan 41 eta Txilen 70, esaterako. Estatu Batuetan, Kalifornia Estatuan 89, Arizonan 13, Idahon 15, Nevadan 9 eta Wyoming-en 5; Kanadan, berriz, hiru eta Frantzian 7. Hiru eta bost urteko lan kontratuekin joaten omen zen jendea, eta behin bere kabuz ezartzen zirenean eta diru puska bat pilatzen zutenean, Baztanera itzultzen ziren. Iragan berri diren 1999ko hautes-

kundeetako erroldaren arabera, 501 familia baztan bizi dira beste herrialde batera. Elizondoko da baztandarrak dituen herria, 2693, eta ongarria ez da Balleko hamalau batzuek, Mexikoko Distritoala baizik, 1.000 baztandarra. Beraz, Mexikoko hiriburua beste Baztango bigarren herrialdearen egun 7.741 lagun bizi diren bailaratik kanpo beste herrialde batzuetan bizi diren batak ez dute askok, ez dakite zeren ondoren ez non ote dauden herrietatik dienez, duela 25 urte Balleko diru sarrera garrantzitsua zen kanpoan bizi zirenen bidez egin da. Asko artzai josten EEBB-tara. 500/600 dolar biltzen zituzten hilabetean. Beldintza gogorretan lan egiten zirenen, artalde oso handiekin eta diru ez ziren hilabeteetan jaltzen zirenen egun,

nez, Antxitonea nekazari, kontrabandista eta pilotazaleen gunea zen. Hainbat desafio ere jokatzen ziren bertan. Askotan bete egiten zen eta bai alde batekoen zein bestekoen tantoak eta txaloak kanpotik etzuten behar izaten zituen batek baino gehiagok. Baztan aldeak, gainera, hartu-eman handia zuen ondoan zi-

eta jokoan sekulako dirutza jarri omen zuten. «Egin zituzten han bi partida eta bana gelditu, eta Antxitonea aukeratu zuten gero azken partida erabakitzeko. Sekulako jendeak etorri zen. Bete-betea dena eta jendea kanpoan. Batzuk bikote baten alde eta besteak bestearen alde. Eta txaloak egiten zituzten karrikan, beren aldekoek eta tantoa egiten zutelarik», gogoratu du. Partidu hura Dongaitz anaia lapurtarrek irabazi zuten, eta galtzaile Leonis eta Artze deitutakoak izan ziren. Baina pilotak ez ezik, beste joko batek ere izan du leku berezia Antxitonean, bertsolaritzak, hain zuen. Trinketea paretak hainbat bertso saioaren lekuko eta entzule izan dira. Besteak beste, han egin zen Nafarroako Bertsolari Txapelketa lehenbiziko aldiz. 1936ko urtarrilaren 12a zen, eta hamar bertsolari hurbildu ziren Elizondora, haletako lau baztandarrak: Pedro eta Juan Ibarra, Felix Iriarte, eta Patxi Elorga. Beste seiak mugaz bi aldeetako herrietakoak ziren: Martzel Larrosa, Beltran Sahargun, Jean Harriet, Simun Ibarra, Jose Mari Mutuberria eta Mixel Dargaitz. Lehen postua Felix Iriartek eskuratu zuen eta bigarren Mutuberria gelditu zen. Baina Gerra Zibila etorri zen eta hori guztia itzali egin zen. 1960 arte ez zen beste bertsolari txapelketarik jokatu. Orduan, Principe de Viana erakundearen izenpean egin zuten, eta, geroztik, haren izenean antolatzen zituzten arazorik ez izateko eta lasai jokatzeko.

## Kirola izanzen da nagusi

Trinketeari aurpegi berria jarriko dioten lanak Eduardo Zubikoa herriko arkitektoak zuzenduko ditu. Lehen bezala taberna eta jatetxea izanen ditu Antxitoneak beheko solairuan, eta goian, garai batean bezala, hotela paratuko dute, 22 gelarekin.

«Garai batean bezala Iparraldekoen eta Hegoaldekoen arteko txapelketak berritzeko asmoa dut. Gipuzkoako Pilota Federazioko presidentearekin egon nintzen Mexikon, eta nahi dute hemengo jende gaztea prestatzea eta jokatzea Senpereren aurka, Miarritzeren aurka».

Era berean, trinketea moldatuko du Urrutiak. Zola pikatu eta aldatu, tellatua eta inguruko zurajea ere bai, pareta berdez pintatu du eta zola beltzez.

Hari segidan, lur azpian igerileku egokitua eta bi squash kantxa egiten ditu, eta gainean gimnasio bat. «Badut gogoa hau martxan jartzeko. Esperantza badut ongi funtzionatuko duela, ez baita kompetentziarik hemen. 100 milioi pezeta inbertituko ditut (lau milioi libera) lanak egiten. Ballearen onerako izanen dela uste dut, jendeak ere eskatzen baitzuen», dio pozik.


Urrutia Mexikoko hiriburuko Euskal Etxeko zuzendaritza batzordeko kide zen, eta han ongi bizi bazen ere itzultzea erabaki du hiriburuko segurtasun eza gero eta handiagoa zelako. «Zaila da ezkontzen dena eta familia egiten duena etortzea, baina gu soileroak-eta aisago da etortzea. Ez da horrenbertzeko problema-rik», dio.

«Mexikon gustura bizi ginen, baina beti asmoa genuen gibelerat etortzeko. Bestelde, segurtasun eza gero eta handiagoa da. Ekonomia arunt gaizki dago eta hortik heldu da dena. Jende pila bizi da kapitalean, 27 milioi lagun. Jende aunitz bada miserian eta normala da segurtasun falta izatea. Hangoa saldu eta hemengoa erosteko aukerá atera zen eta itzuli naiz», gaineratu du.

Heldu den uztailerako lanak bukatuak egonen direla uste du Urrutiak. Bere asmoa Baztanen kirola, eta bereziki pilota, bultzatzea da. Nafarroan beste hiru trinkete bakarrrik daude (Iruñeko Tenisekoa, Oberena elkartearena eta Lekunberri herrikoa), eta badu trinketea berriz mugimendua ikusteko gogoa.

«Garai batean bezala, Iparraldeko eta Hegoaldekoen arteko txapelketak berritzeko asmoa dut. Gipuzkoako Pilota Federazioko presidentearekin egon nintzen Mexikon eta nahi dute hemengo jende gaztea prestatzea eta jokatzea Senpereren aurka, Miarritzeren aurka. Era berean, Lekunberri eta Iruñean ere antolatu nahi dituzte eta horretan beldintza. Bere ustez, «afizione handia bada frontonerako, baina nahi dute berriz trinketerako jendea mugitu. Gazteari afizionea sartuz, eta enpresak sartzen badira mugitzen ahal da. Txapelketa polita ikusteko aukera izanen dugu».

→ Irene Arrizurieta



Antxitonea trinketean hainbat partidu jokatu dira. ● ONDIKOL

Francisotia, Antxitoneak erosi duen iragarria. MIKEL SAIZ



## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

# Ultzamako euskal idazleen berri laburra

**Gutxi dira iritsi zaizkigun Ultzamako euskal idazleak; irakurle askok, berriz, izen bakarra baizik ez duke ezagun, Polikarpio Iraizokoa zen Agustin Zarrantz alegia; gehiago egon bazeuden, ordea; hona hemen gutxi batzuk: Bizente Lazko, Pedro Tornaria, Bernardino Gerendiain, Justo Albisu, Karlos Esain...**



**U**LZAMAKO EUSKARA IHARTU izan den heinean hirukoitzaren izan da hizkuntzalaritzaren alde-tik mintzaira hau ikertzeko egin izan den saloa. Bonaparte-lzagirre-Ibarra alegia, eta badirudi ikerketen segidak berebiziko ete-na pairatu duela jada, ikergaiak gehiagorako ematen ez baitu, oro har. Ordea, Ultzamako idazleez direnez bezanbatean bestelakoa da kontua; naski egile literarioak ohiko ikerketa linguistikoetatik at geratzen direla, komunzki, sorterriko hizkera-kaiolatik aisa hegaldatzen baitira, eta norbederaren hizkera maila aupatzearen ondoko eta are haruntzagoko hizkerak ere erreferente aberasgarri bilakatzen baitzale; guztiarekin ere, idazlea nonbaitekoa izanik, bere tokian kokatu beharra legoke, eta gurean gainera, idazle txikiak eta gehienetan ere erlijiosoak izanik, sorterrira zein sorterriko erkideei zeharo atxekirik agertzen zaizkigu ia beti, nahiz esan bezala, idazkerak ez horrela salatu.

Ultzamako euskarak kezkatu zuen lehenbizikoa Bonaparte izan zen. Honek itzularazi zituen gainera, Lizasoko aldaerari buruzko hainbat kolaborazio helarazi zizkion Campióni azken honek Euskara aldizkarian agertu zitzaan. Aurretik baina, *Orreaga* idazki ezaguna agertu zuen Campiónek, non Ultzamako euskarara bihurtutako aldaera Auzako Bizente Lazkok egin baitzuen. Euskalkien sailkapenerako eginiko lehenbiziko ikerketa hauetan jada, aski argi agerian geratu zen Ultzamako euskara kokatzeko zegoen zailtasuna, eta Bonapartek eginiko mapetan geratu ziren zalantzako gune ilunen argitzen espezialdua zen Kandido Izagirre Urretxuko frantxikotarrak ez zion muzin egin afera hau heltzeari, Mitxelena proposatu zionari jarraikiz, eta berandu bada ere, 1966. ean *Ultzamako euskeraren gai batzuk* 64 orrialdeko artikulua luzanga karrikaratu zuen BAP-en. Azkenik, eta honako gai korapilotsua ardatz nagusitzat hartuta, Mezkirizko Orreaga Ibarren tesilana dugu, nonbait, arazoa zarratzeraz etorri zaiguna. Aurretik ere,


1992. ean hots, Ibarrek berak Ultzamako bi testu editatu zizkigun ASJU-n, hau da, *Ultzameraz idatzitako bi dotrinaren edizioa eta azterketa*, geroago agertuko zutenaren ildo linguistiko beretik. Honako artikulua honetakoak dira, ordea, Ultzamako lehenbiziko euskal idazleek eginiko testuak.

Bonaparteren itzalpean burutu zuen Lizasoko Pedro Tornariak Asteteren itzulpena: *Astete añadido por Luarca traducido al dialecto de Lizaso* eta abar, halaz guztiz, printzeak ez zuen argitara eman, eta hortaz, Ibarrena estraineko edizioa dugu. Lehen hezkuntzako irakasle Iraizotzen ziharduen Tornariaren lana 1863. urte inguruan egin da, eta bestelako itzulpenak ere ondu bide zituen Lizasokoak -Mateoren Ituna, Apokalipsia, Kantiken kantika, Ruthen liburua, eta Jonasen profetia-, Bruno Etxenikek printzeari 1869.eko apirilaren 8an igorri gutunean esanikoaren arabera, haatik, urdazubiarrak aipatu lanen berri ez zaigu iritsi, eta ezin zehaztu eginak eta galduak diren, ala egin gabe geratu zirenentz. Tornariak dakiguna, aldiz, arras gutxi da, eta esanikoz gain, jakin badakigu 1853. ean eginiko Larramendiren hiztegiaren bigarren argitalpeneko harpideduna izan zela, eta beraz, orduko giro euskaltzalea ez zitzaion arrotz.

Euskal Testu Zaharrak bilduman ere Iraizokozko semea zen Bernardino Gerendiain apezak ondutako dotrinaren berri eman zigun Satrustegik. Gerendiaingo eliz parrokiako erretoare honak 1888. ean tajutu zuen bere idazkia, eta Arruazukoaren aburuz, eskuizkribu hau dugu 1906. ean argitara eman zen dotrinaren testu be-

ra, gero Erice eta Garcianen moldiztegi argitaratutakoaren orjinala da. Baliteke hala izatea, baina gauza ezaguna da Cristau doctriñe aite Gaspar Astetec erdaraz erribitue eta Ultzamako apezac balle ontan yarduquitzen den usquerara bihurtue beren feligresan amorioz izenburuko itzulpenaren edizioa Justo Albisu Iriarte Alkozko seme eta apezak hartutako ardurari esker atera zela. Ibarreko eliz kabildoak euskarazko dotrina baten behar gorria zegoela sinetsirik, lan honen azken zirriborroa apezpikuteigiko eliz zentsurari 1906.eko irailaren 6an aurkeztu zion, baita dotrinarekin batera ere. Ultzaman ziharduten Frantzisko Berasain, Juan Migel Gerendiain eta Justo Albisu apezek sinaturiko azalpena. Bestalde ere, Albisu Azkueren kolaboratzaile fermua izan zen, eta ipuin ugari kontatu zizkion lekeitiarrari -Azkueren kolaboratzaile ere Pedro Arbila izeneko ultzamarra agertzen zaigu, nahiz zein herrikoa zen ez dakigun, orobat berari buruzkorik-.

Albisuren doktrina agertu zen ber urtean Karlos Esain Pitillasek hasiera eman zion Iruñean erro-sarioa zein gurutz-bidea euskaraz erreztzeari. Familia karlista er-tsikoa -bere aita zenak Karlos errege-nahi heriotzetik salbatu omen zuen, eta hortik beraz, semearen izena ere- Larraintzaren 1854. ean jaio zen; magisteritza eginik, Iraizotzen eta Legazpian arizan zen maisu, oposaketetan gailendurik Donamartiri-Unxera abiatu aitzin; 1885.etik Iruñeko Erruki-etxean izan zen, bertako haurren irakasle, eta hantxe zegoela, 1887. urte inguruan edo, bere Nociones de historia natural para uso en la escuela de primera enseñanza testu liburua idatzi zuen, 30 ikasgaietan mineralogia, zoologia eta botanikazko hasi-masiak eskeintzen zituela. Ez bide zuen, ordea, euskaraz ezertxo ere idazteko astirik izan, eta 1912.eko otsailaren 19an zendu zenean, mende hasierako Iruñean euskaraz egiten ziren otoitzaldi bakarrak bertan behera geratu ziren.



## etorri ahalean

Patziku Perurena



## Hitzak larrutzen (I)

**A**BAD E A : HEBRAIERAZKO «*abba*» (= aita) hitzetik omen dator, eta he-daduraz gizatalde baten buruzagia izendatzera irago da. Nik ordea, gure ahaidetasun zahar-reko *aba* atzikiarekin uztartu nahi dut: *ugazaba, asaba, izeba, arreba, neba, loba, auba...* Harritzekoa Astarloak, Aranak, Azkuek, Sarasolak, aita goiti eta aita behiti ari arren, tutik ere ez esatea hebraierako *abbaz*. Sabinekin gainera, esentzi bila, *aba, abenda, aberri, abizen* bezalako neologismoak sortu zituen, euskal usuario hankaz gora bo-teaz.

-BARDOA: Jatorri zeltikoa du (*bardd* > lat. *bardus*), eta festa herritar edo eliztar ofizialetan heroi edo jainkoei kantatzen zien koblaria zen bardoa. Nafarroan igoaltsu: beren ariman erroturiko ohiturak eta sineskerak koplatur herria bozkariotan ipinten zuen trobadorea zen bardoa, (demagun gaurko bert-solaria).

Komptuen Artxiboan ageri omen da, Ameskoan 1294 urte-tik honuntz: «*En Çudadayre, de tributo hereditatis vocate de Bar-do III. K.III q.*». Seguru lurrok, kristauel eta koroari bizkar ematen zien bardoren baten lur konfiskatuak zirela, 1396 urte-an oraindik «*Heredades del Bar-do*» izenez ageri baitira; baina Karlos II.ak Ameskoako labora-riei emanak izan ziren atzene-an. Horra, bardolaritza marji-nala izan delako beste aztarre-na.

-NOR JAINKOA BEZALA: Ba-dira urte batzuk, San Tiburtzio eguerdi batez, Leitzako Udaleko batzartokian, urteroko luntxa aitzaki, kontu kontari geunde-la, Egaña bertsolariak galde egin zidala «*Zer esan nahi du horrek, hi?*» txoko batean «*Nor Jainkoa Bezala?*» lema zeraman bandera ikusirik. Berandu ba-da ere, hona kontesta Artonio:

Nikolas Arbizuk, hala zeka-rrek, *Estudio Epigráfico de Itur-mendi lanean*: «*en el centro del retablo mayor se sitúa al patrón*

*San Miguel y en su escudo se ha escrito: «QUI UT DEUS» y su traducción castellana en el frontal del altar: «Quien como dios»*. Ge-roztik, Leitzako abadeak esana zekiat, «*San Migel*» goiaingerua-ri buruzko hagiologiak horixe esan nahi omen duela hebraie-ra zaharrean.

-PAXEGONA: Eragin haun-dia izan du Aragoi aldeko ehun-gintzak Nafarroan. Leitzan ba-da arropa denda bat, ehun urte-tik gora doana, eta «*Paxegona*» deitzen diote, nahiz etxearen izen zaharra Aurkitzikine izan. Santanderko Arredondotik eto-rri ziren Juan Gomez Carral eta Paula Crespo García 1870 alde-an, arropa saltzera, eta bertan gelditu. Hartaxetik hartua du etxeak izena; izanez ere, San-tanderko Pas ballarakoei «*pasie-go*» deitzen baitzale. Aitona Be-nito Luxeak esana dakit: «*Orik arropa Frantzitik kontrabando-an ekarritte saltzen tzuen*». Ez harritu.

-TXERMENA: Guk udare kla-se ttiki bati Goizuetan. R. M. Az-kuek «*Xermen*» eta «*Zermein*» jaso zituen Saraitzu eta Erron-kari aldean «*perucha, petite poi-re*» esanahiarekin. Urola eta Goierrri aldean: «*Txermena*: pe-ra, en general». Orion eta Etxa-rrri-Aranatzen: «*peruétano, ci-erta pera pequeña y dulce*». Baina, Barrankako zenbait eskekanta espainoltzean J.M. Satrustegik: «*Gure baratzan txermenak/ on-dotik gora lerdanak*» = «*En nues-tra huerta se dan injertos*». Hala ote? Auskalo. Oñatiar bati «*txermena*» aditua diot gure udare ordez; hala ere, R.M.Az-kuek «*injerto*» dakar hango txer-mentzat. Bada hor nonbait na-hasterik.

Fernando Serranok XVII. mendeko konfiteritza hala dio: «*melones, pepinos, cermeñas y acerolas son otras frutas y hoz-talizas que también se utilizan para hacer dulces*». Hiztegi es-painola begiratu, eta berdin: «*cermeña: (lat. sarminia = perfo-llo) especie de peral*». Filologo aprobetxategi horiek, argi naza-zue pittin bat.

## Ziria

• Motxorrosolo •

### Lubakiarena

**O**NARTU ALA EZ, IDEIAREN ZUZENTASUNA EZBAIAN JARRI GABE, anitzen aburuz, lubakiarena da egoera emendatzeko tresna bakarra, eta azkenoak jaso ondoren, ez dirudi sobera baztergarria denik. Soziologoendako lan eskerga. Gehienak beldurra dio tan-ker horretako irakurketak egiteari, politikoki ez omen da zuzena. Afera bestelakoa da, lubakiaz baino lubakiez jardun beharra dugu, barnekoak ahaztu gabe.



# Carmen Pugliese

Erromesa eta idazlea

## «Errespetuak bereizten ditu erromesa eta ibiltaria»

Carmen Pugliese italiarrak 'El camino de Santiago en el S. XIX' liburua aurkeztu zuen herenegun Lizarran. Torres del Rio herrian dagoen erromes aterpea gobernatzen du Carmenek. Liburuarekin frogatu du XIX. mendean ere erromesak joan zirela Santiagora, bidearen historialari askok mende horretan erromesaldirik izan ez zela uste izan duten arren.

Hiztuna eta kementsua da Carmen. Bideak askotan trabak jarri badizkio ere, bidez maiteminduta bertan kokatu eta bere egin duen horietakoa da.

■ **El camino de Santiago en el Siglo XIX (Donejakue bidea XIX mendean) idatzi duzu. Zergatik aukeratu duzu mende hori?**

Bidera etorri nintzanean liburu batzuk aurkitu nituen dokumentatzeko.

Liburuak XII, XIII mendetik XVIII. menderainoko informazioa ematen zuten. XIX mendeari buruz ez nekien ezer eta uste nuen ez nuela deus aurkituko. Burgosen, Leonen, Santiagon bilatu nuen baina deustako. Orduan XX. mendeko liburu bat idatzi behar nuela otu zitzaidan. Espainara joan nintzen liburua idazteko. Hemerote-

kak, egunkariak eta artxibategiak begiratzen hasi nintzen. 1900ko urtarrilean hasia artifiziala iruditzen zitzaidan eta 1879 otsailean hasia pentsatu nuen, orduan aurkitu baitziztuzten bigarren kardinal bategordetako sainduaren erlikiak. Joan den mendeko azken hamabostaldiko berri bilatzen ari nintzela, aurkitu nituen joan den mendeko hiru eskuiz-

kribu ezezagun: Santiagoko Errege Katoliko ospitalera iristen ziren erromesen zerrenda, alegia. Lehena 1807an hasten zen. Gero, Santiagoko irakasle batek falta ziren lehen zazpi urteetako eskuizkribuak utzi zizkidan eta mende guztia osatu dut, 1905 urtera arte. Jendeak zioen XIX. mendean ez zegoela erromesaldirik, eta azken erromesa Donibane-Lohizunen ikusi zutela XVIII. mende bukaeran.

Vazquez de Pargak zioen hori Donejakue bidean aditua da bera-, baina hori esaten zuen ez zuelako dokumenturik aurkitu. Hau da XIX. mendean dagoen liburu bakarra, ez dago dokumentazio gehiagorik. Santiagoko Unibertsitateko Artxibategi Historikoan aurkitu nuen. Dokumentazioa *Gaixoak* izenburupean gordea zegoen.

■ **Nolako zen erromesa garai hartan?**

Erromesa soinean zuenarekin joaten zen. Gehienez aldatzeko arropa eramaten zuten. Gainera, kasik inork ez zuen kulerorik edo galtzontzilorik eramaten. Ospitaleetara heltzen zirenean, soinean zeramatenaren zerrenda oso zehatza egiten zuten, eta galtzontziloak



MIKEL SAIZ

soslaia

bitan bakarrik ageri dira. Manta edo zamarra eramaten zuten lo egiteko, eta hotzetik babesteko. Oso jende ausarta zen. Jende hark ez zuen gaurko erosotasunik. Gehienak taldeka joaten ziren, orain baino arrisku gehiago zegoelako.

■ **Zergatik aldaketa hori?**

Seguruenik, benetako erromesaren barruko sentimendua ez da aldatu. Ez gara turistaz ari edo modari jarraitzen dionaz, aurtan bolada delako. Ez dut esaten erromesak katoliko erlijioso bat izan behar duenik. Baina espiritualtasuna izan behar du, eta errespetua eta elkartasuna besteei, eta hori desagertu egin da tamalez. Joan den mendean debozioz joaten ziren, fede gehiago zegoen. XIX. mendeko erromesak 60ko hamarkada arte erromes izaten jarraitzen du, baina garraibideak erabiltzen hastean erromesaldien zentzua asko aldatu zen.

■ **Bidea egiteak zer zentzu du egun?**

Erromes bakoitzarentzako zentzu bat du. Ezin da orokortu. Badago denetarik: igandero bidearen zati bat egiten duena, bide osoa promesa batengatik egiten duena edo denbora-pasa dabilena.

Carmen Pugliese Italiako Milan hirikoa da berez. 1985ean liburuxka bat irakurriz izan zuen bidearen berri. Joan behar zuela otu zitzaion, eta 1991n alde egin zuen Italiatik bidea egitera. Bidea egitean, aterpeak falta zirela sumatu nuen. Etxera itzuli, Italiako literaturako irakasle lana eta familia utzi, eta Santiagora joan zen. Hamabost egunerako egonaldia bazen ere, lau urtez gelditu zen han. Liburuak bukatu zuen, eta bidera etorri zen aterpe bat jartzeko Nafarroako Torres del Rio herrian.

Lagunarekin batera moldatzen ari den aterpe horrek hogeita hamar ohe ditu. 14:30etan irekitzen dute, 22:00etan itxi, eta ordu erdi geroego argiak itzali. Irekia dago urte osoan. Egutero hamarren bat erromes iragaiten dira bertatik. Vianarako bidean azken aterpea da berea. Carmenen irudiko, egun dauden azpiegiturak gehiegizkoak dira. «Erromesari zenbat eta gehiago eman, gehiago eskatzen du».

Bidearen historian menderik hoberenak XII.a eta XIII.a izan zirela dio. Berak Orreagan hasi zuen ibilbidea 1991n, eta egun batean iritsi zen Iruñeraino, leherturik. Orduko ibilerak gehiago gustatzen zaizkio, ez zegoen hain egituratu eta. Bidea egin nahiko luke berriro, baina, lehenik eta behin, egiten ari diren aterpea, etxea, taberna eta jatetxea eraikitzeko lanak bukatu behar dituzte. Era berean, Donejakue Bideko Kultura Zentroa jarri nahi du: Internet, aldizkari bereziak eta liburuak jasoko lituzke. Gainera, XX. mendeko liburuak zain dauka.

■ **Aurtan nabaritzen da Urte Konpostelarra dela?**

Bai, baina ibiltari gehiago dabil erromes baino.

■ **Zer da bion arteko ezberdintasuna?**

1991z geroztik bidean bizi naiz eta urtero ikusten ditut erromesak. Bi arrazoirengatik bereizten dira: begirada eta

errespetua. Erromesak errespetua die besteei: aterpeari, hango arduradunari... Aldiz, turismoa egitera datorrena presaka eta oihuka dator, eskatu besterik ez du egiten. Erromesa ez dator presaz, laisai dator.

→ Irene Arrizurieta





## Nafar Kronika

Gontzal Agote

### Joko instituzionala

Huteskunde gaueko txanparen botila eta malkoak ahaztuta daudenean azterketa sakon eta burutsuen tenorea omen da. Baina hori beste nonbait irakurri beharko duzue. Zutabetxo honen helburua askoz ere xumeagoa baita; alde batetik, honen tamainak ez duelako horretarako ematen, eta bestetik, idazten duenaren mailak ere ez duelako ematen. Zertzelada bat baino ez.

Interpretazioak interpretazio, igandeko hauteskundeek bi garailu utzi dituzte Nafarroan: UPN eta EHk. Lehenengoek, Allik eta honen jarraitzaileek kendutakoa berreskuratu zuten azken urteotako PSNren oposizio ezak lagunduta. Sortutako gehiengo zabal horrek ez dute inolako pakturik beharko hurrengo lau urteetan agintean jarraitzeko. Haien ezaugarriak nagusiena Parlamentuaren erabakiekiko mesprezua baita. Hauek erraza dute.

Zailagoa du ordea ezker abertzaleak. Igandeko emaitzak Hego Euskal Herri osoan positiboak izan baziren ere, hurrengo lau urteotan nola kudeatzen dituen ikusteke dago. Azken hilabeteotan aldatu diren gauza askoren arteko nagusietako bat, ezker abertzalearen apostu politiko ausarta da. Herritarrek bat egin dute apostu honekin eta emaitzak hor dira.

Baina orain EHk arreta handiz neurtu beharko ditu urratsak «politikaren» joko errezean ez erortzeko, joko instituzionalak irentsi dezakeena, hainbat kasutan gertatu den moduan.

Zorionez, ez naiz ni horretaz ohartu den bakarra eta hau hala izan ez dadin badira militante ugari, bizkarraren esperientzia aberatsa daramatenak, eta hauek dira joko instituzionalaren aurrean bermerik handiena.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Ella Baila Sola bikoteak kontzertua emanen du gaur Anaitasuna pabiloian, 22:00etan. Sarrerak 2.500 pezeta balio du.
- **Iruñea:** Half Foot Outside taldeak kontzertua eskainiko du datorren ostegunean, 21:30etan, Terminal tabernan.

### ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Zabaldin, Oskar Gallanaren Etxeko Art *Impresiones sobre papel* lana ikus daiteke uztailaren 3a arte.
- **Zizur Nagusia:** Isabel Ortega eta Maria Jose Unzuren lanak ikus daitezke hilaren bukaera arte, Kultur Etxean.

### ANTZERKIA

- **Burlata:** Trokolo taldeak *A bombo y platillo* lana jokatu du bihar 18:00etan, Ezkabal plazan, euskaraz. T'Ombligo taldeak, berriz, *Caninando* haurrentzako lana antzertuko du 12:00etan, Eugenio Torres plazan.
- **Zizur Nagusia:** NUPeko Antzerki Taldeak *La zapatera prodigiosa* lana antzertuko du Kultur Etxean, 20:00etan. Sarrerak 400 pezeta balio du.

### BERTSOLARIAK

- **Iruñea:** Errotxapean bertso afaria egingen da gaur, jaiak dirrela eta. Igor Elortza eta J.M. Irazu ariko dira kantari.
- **Donibane-Garazi:** Bertsulari Ttipiren kariaz, gaur Vaubain aretoan 22:30tik goiti bertsoan ariko dira Amets Arzellus, Eneritz Zabaleta, Miren Arretxe, Xumai Murua eta Sustrai Kolina.

### BESTELAKOAK

- **Castejon:** Nafarroako Jotaren I. Lehiaketa antolatuko du

herriko jota eskolak biharko. Partehartzaileak bikoteak edo bakarlariak izan daitezke, eta adinaren arabera hiru sailetan banatuko dira: helduak, gazteak eta haurrak. Lehiakideek herriko Kultur Etxean eman behar dute izena. Lehiaketa Espainiako plazan izanen da, 21:00etan.

- **Iruñea:** III. Bilduma Feria antolatu da gaurko eta astebururako zezenplazan. Bisita-

riak liburu eta argazki zaharrik, sei luak, diskoak, komiki zaharrik, intsektuak eta abar topatuko ditu


- **Iruñea:** Umeentzako Antzerki Testuen VIII. Lehiaketa antolatu du Udalak. Partehartzaileek hemezortzi urtez goikoak behar dute izan. Gehienez hiru testu aurkez daitezke, euskaraz zein gaztelaniaz. Lanak Nafarroako Antzerki Eskolara igorri behar dira (San

Agustin kalea, 5. 31001. Iruñea) abuztuaren 1a baino lehenago. Saridun bakarra egonen da euskaraz zein gaztelaniaz, eta 250.000 pezeta jasoko du. Informazio gehiago: 948-22-92-39/21-03-60.

- **Iruñea:** *Autodeterminación, Nacionalidades y Constitución* gaiak mintzatuko da Xacobe Bastida galiziarra gaur Erraldoien Txokoan, 20:00etan.

## Arestiren liburutegia

Castelao nos



—O escolante díxonos que o mundo é redondo. ¿Ti créelo?

**Maiusauk mundua biribila dela esan diauguk. Sinisten duk-a hik?**